

ARAUDIA, IZAERA PERTSONALEKO DATUAK DITUZTEN FITXATEGI AUTOMATIZATUEN SEGURTASUN NEURRIEI DAGOKIENA

I. KAPITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Aplikazio eremuak eta xedeak

Araudi honen helburua beharrezkoak diren neurri tekniko eta antolamenduzkoak ezartzea da honako hauen segurtasuna berma dadin: fitxategi automatizatuak, tratamendu zentroak, lokalak, ekipoak, sistemak, programak eta Izaera Pertsonaleko Datuen Tratamendu Automatizatu arautzen duen urriaren 29ko 5/1992 Lege Organikoa aintzakotzat hartuta izaera pertsonaleko datuen tratamendu automatizatuan aritzen diren pertsonak.

2. artikulua.- Definizioak

Araudi honi dagokionez, hiztegia honako hau izango da:

1.**Informazio-sistema:** Izaera pertsonaleko datuak tratatzeko eta gordetzeko fitxategi automatizatuen, programen, euskarrien eta ekipoen multzoa.

2.**Erabiltzailea:** Baliabideak edo datuak ezagutzeko baimendutako subjektua edo prozesua.

3.**Baliabidea:** Informazio-sistema baten edozein osagai.

4.**Sarbide baimenduak:** Hainbat baliabide erabiltzeko erabiltzaile bati emandako baimenak.

5.**Identifikazioa:** Erabiltzaile baten identitatea ezagutzeko prozedura.

6.**Baimentzea:** Erabiltzaile baten identitatea egiaztatzeko prozedura.

7.**Sarbide kontrola:** Identifikazioa baieztatua dagoenean baliabide edo datuetara sarrera baimentzen duen mekanismoa.

8:**Pasahitza:** Informazio konfidentziala, sarritan karaktere kate batez eratua, erabiltzailea egiaztatzeko erabil daitekeena.

9.**Gertakaria:** Datuen segurtasunean eragin dezakeen edo lezakeen edozein arazo.

10. **Euskarria:** Informazio-sistema batean erabil daitekeen edozein objektu fisiko eta bertan datuak grabatu edo berreskuratu daitezkeena.

11. **Segurtasun arduraduna:** Fitxategiaren arduradunak bete behar diren segurtasun neurriak kontrolatzeko eta koordinatzeko agindua eman dien pertsona edo pertsonak.

12. **Segurtasun-kopia:** Fitxategi automatizatu baten kopia berreskurapena ahalbidetuko duen euskarri batean

3. artikulua.- Segurtasun neurriak

1. Eskatu beharreko segurtasun neurriak hiru mailatan sailkatzen dira: oinarrizkoa, erdi mailakoa eta goi mailakoa.

2. Maila horiek trataturiko informazioaren izaera aintzakotzat hartuta ezartzen dira, informazioaren konfidentzialtasuna eta osotasuna bermatzeko beharizan handiagoa edo txikiagoa kontuan hartuz.

4. artikulua.- Segurtasun mailak ezartzea

1. Izaera pertsonaleko datuak dituzten fitxategi guztiek oinarrizko segurtasun neurriek izan beharko dituzte.

2. Arau-hauste administratiboek edo penalek, Herri Ogasunak, finantza zerbitzuei buruzko datuak dituzten fitxategiek eta 5/1992 Lege Organikoaren 28. artikulua aintzakotzat hartzen duten fitxategiek, oinarrizko neurriez gain, erdi mailakoak ere izan beharko dituzte.

3. Bai ideologia, erlijioa, sinesmenak, arraza, osasuna edo sexu bizitzari buruzko datuak dituzten fitxategiek bai fitxategian bertan daudenen baimenik gabe polizia auzietarako bildutako datuak dituztenek, oinarrizko eta erdi mailako neurriez gain, goi mailakoak ere izan beharko dituzte.

4. Fitxategiek norbanakoaren pertsonalitatearen ebaluazioa ahalbidetuko duen izaera pertsonaleko nahiko datu dutenean 17, 18, 19 eta 20. artikuluetan ezartzen diren erdi mailako neurriak bermatu beharko dituzte.

5. Arestian aipatu maila bakoitza gutxienez eskatu beharrekoa izango da indarrean dauden legezko edo erregelamendu-xedapenen kaltetan izan gabe.

5. artikulua.- Datu-sarbidea komunikazio sareen bidez

Komunikazio sareen bidez izaera pertsonaleko datuetan sartzeko eskatu beharreko segurtasun neurriek modu lokalean sarbideek duten bezalako segurtasun maila bermatu beharko dute.

6. artikulua.- Fitxategiaren kokapen-lokaletatik kanpoko lan-araudia

Fitxategiaren kokapen-lokaletatik kanpo egiten diren izaera pertsonaleko datuen tratamendua fitxategiaren arduradunak berak baimendu beharko du eta, betiere, trataturiko fitxategiari dagokion segurtasun maila bermatuz.

7. artikulua.- Aldi baterako fitxategiak

1. Aldi baterako fitxategiek araudi honetan emandako irizpideen arabera segurtasun mailak bete beharko dituzte.

2. Aldi baterako fitxategi oro ezabatu egingo da sortu zen helburuetarako beharrezkoa ez denean.

II. KAPITULUA.- OINARRIZKO SEGURTASUN NEURRIAK

8. artikulua.- Segurtasun-dokumentua

1.- Fitxategiaren arduradunak segurtasun araudia sortu eta ezarriko du informazio-sistemara eta izaera pertsonaleko datu automatizatuetara sarbidea duten guztiek bete beharko duten dokumentu baten bidez.

2.- Dokumentuak, gutxienez, honako alderdi hauek izan beharko ditu:

- a. Dokumentuaren aplikazio eremua babesturiko baliabideak zehaztuz.
- b. Neurriak, arauak, prozedurak, erregelak eta estandarrak araudi honetan eskaturiko segurtasun maila bermatzeko.
- c. Pertsonalaren funtzioak eta betebeharrak.
- d. Izaera pertsonaleko datuak dituzten fitxategien egitura eta horiek erabiltzen dituzten informazio-sistemen azalpena.
- e. Gertakarien jakinarazpenaren, kudeaketaren eta erantzunaren prozedura.
- f. Datuak berreskuratzeko eta segurtasun-kopiak egiteko prozedurak

3.-Dokumentua, une oro, eguneratuta egon beharko da eta berraztertuko da informazio-sisteman edo bere antolaketan aldaketa nabarmenak daudenean.

4.-Dokumentuaren edukia, une oro, egokitu beharko da izaera pertsonaleko datuen segurtasunerako indarrean dauden xedapenak aintzakotzat hartuta.

9. artikulua.-Pertsonalaren funtzioak eta betebeharrak

1.-Informazio-sistemara eta izaera pertsonaleko datuetara sar daitezkeen pertsonen funtzioak eta betebeharrak argi eta garbi definituak eta dokumentatuak izango dira 8.2. c) artikulua aintzakotzat hartuta.

2.-Fitxategiaren arduradunak beharrezko neurriak hartuko ditu pertsonalak ezagutu ditzan bai beren funtzioen garapenean eragina duten segurtasun neurriak bai horiek bete ezean izan litezkeen ondorioak.

10. artikulua.-Gertakarien erregistroa

Gertakariak jakinarazteko eta kudeatzeko prozedurak nahitaez erregistroa izango du non honakook azalduko diren: gertakari mota, noiz sortu den, nork jakinarazi duen, nori

komunikatzen zaion eta horren ondorioz izan litezkeen ondorioak.

11. artikulua.-Identifikazioa eta egiaztapena

1.-Fitxategiaren arduradunak informazio-sisteman **sartzeko baimena** duten erabiltzaileen eguneratutako zerrenda emateaz gain sarbide horren identifikazio eta egiaztapen prozedurak ere ezarriko ditu.

2.-Egiaztapen mekanismoa pasahitzetan oinarritzen denean konfidentziasuna eta osotasuna bermatuko dituen esleitzeko, banatzeko eta gordetzeko prozedura izango da.

3.-Pasahitzak aldatu egingo dira segurtasun-dokumentuak ezarritako aldizkakotasuna kontuan hartuz eta indarrean dauden bitartean era ulertezinean gordeko dira.

12. artikulua.-Sarbide-kontrola

1.-Erabiltzaileek **sartzeko baimena** izango dute soil-soilik euren funtzioen garapenerako beharrezkoak diren datu eta baliabideetara.

2.-Fitxategiaren arduradunak mekanismoak ezarriko ditu baimenduak ez diren eskubideekin erabiltzaile bat datu edo baliabideetara sar dadin saihesteko.

3.-Araudi honen 11.1 artikuluan agertzen den erabiltzaileen zerrendak erabiltzaile bakoitzarentzat sartzeko baimena izango du.

4.-Soil-soilik segurtasun-dokumentuan horretarako baimendutako pertsonala gai izango da **sartzeko baimena** emateko, aldatzeko edo ezereztatzeko, fitxategiaren arduradunak ezarritako irizpideak aintzakotzat hartuta.

13. artikulua.-Euskarrien kudeaketa

1.-Izaera pertsonaleko datuak dituzten euskarri informatikoen honakook bermatu beharko dituzte: daukaten informazio mota identifikatzea, inbentariatzea eta gordetzea toki batean non sarbidea mugatuko den segurtasun-dokumentuan horretarako baimendutako pertsonalari.

2.-Izaera pertsonaleko datuak dituzten euskarri informatikoen irteera, fitxategia kokatuta dagoen lokaletatik at, soil-soilik fitxategiaren arduradunak baimenduko du.

14. artikulua.- Segurtasun-kopiak eta berreskurapena

1.-Fitxategiaren arduraduna datuak berreskuratu eta segurtasun-kopiak egiteko prozeduren definizioa eta aplikazio egokia egiaztatzeaz arduratuko da.

2.- Datutu berreskuratu eta segurtasun-kopiak egiteko ezarritako prozedurek datuak berreraikitzea bermatu beharko dute galdu edo ezeztatu aurretik zeuden moduan.

3.-Segurtasun-kopiak egin beharko dira, astean behin gutxienez, epe horretan daturik eguneratu ezean.

III. KAPITULUA.- ERDI MAILAKO SEGURTASUN NEURRIAK

15. artikulua.- Segurtasun-dokumentuak

Segurtasun-dokumentuak izan beharko du, Araudi honen 8. artikulua xedatzen duenez gain, segurtasunaren **arduradunaren edo arduradunen** identifikazioa, dokumentuan bertan xedatutakoa betetzen dela egiaztatzeko egin beharreko aldizkako kontrolak eta hartu beharreko neurriak euskarri bat baztertu edo berrerabiltzen denean.

16. artikulua.- Segurtasun-arduraduna

Fitxategiaren arduradunak **segurtasun-arduradun bat edo batzuk** izendatuko ditu segurtasun-dokumentuan finkaturiko neurriak koordinatu eta kontrolatzeko. Izendapen horrek ez du inolaz ere esan nahi erantzukizuna beste baten esku uzten

denik, horren erantzule fitxategiaren arduraduna baita Araudi hau aintzakotzat hartuta.

17. artikulua.- Kontu-ikuskaritza

1.-Datuen tratamendurako informazio-sistemek eta instalakuntzek barne edo kanpoko kontu-ikuskaritza izango dute Araudi hau, datuen segurtasunerako indarrean dauden prozedurak eta jarraibideak betetzen dituztela egiaztatzeko, gutxienez bi urtetik bi urtera.

2.-Kontu-ikuskaritzaren txostenak irizpena eman beharko du Araudi honen neurri eta kontrolen egokitzapenari buruz, hutsuneak identifikatu eta neurri zuzentzaileak edo osagarriak proposatu beharko ditu. Halaber, proposaturiko gomendioetan edo jasotako irizpenetan oinarritzen diren datu, gertaera eta oharrak barne hartu beharko ditu.

3.- Kontu-ikuskaritzako txostenak aztertuko dituen segurtasun-arduradun eskudunak fitxategiaren arduradunari emango dizkio emaitzak neurri zuzentzaile egokiak har ditzan eta Datuak Babesteko Agentziaren esku geratuko dira.

18. artikulua.- Identifikazioa eta egiaztapena

1.-Fitxategiaren arduradunak mekanismo bat ezarriko du zeinak informazio-sistemetara sartzen saiatzen den erabiltzaile ororen identifikazioa era pertsonalizatuan eta zalantzarik gabe ahalbidetzeaz gain baimenduta dagoen egiaztatuko duen.

2.-Mugatu egingo da informazio-sisteman behin eta berriz baimenik gabe sartzen saiatzea.

19. artikulua.- Sarbide fisikoaren kontrola

Soil-soilik **segurtasun** dokumentuan baimendutako pertsonala sartu ahalko da izaera pertsonaleko datuak dituzten informazio-sistemak dauden lokaletara.

20. artikulua.- Euskarrien kudeaketa

1.-Euskarri informatikoen sarbidearen erregistro-sistema ezarriko da zeinak, zuzenean edo zeharka, honakook ezagutzea ahalbidetuko duen: euskarri mota, data eta ordua, igorlea, euskarri kopurua, daukaten informazio mota, bidaltzeko modua eta behar bezalako baimena izango duen harreraren arduraduna.

2.-Halaber, euskarri informatikoen irteeraren erregistro-sistema izango da zeinak, zuzenean edo zeharka, honakook ezagutzea ahalbidetuko duen: euskarri mota, data eta ordua, hartzailea, euskarri kopurua, daukaten informazio mota, bidaltzeko modua eta behar bezalako baimena izango duen bidalketaren arduraduna.

3.-Euskarri bat deuseztatu edo berrerabiltzen denean beharrezko neurriak hartuko dira bertan zegoen informazioaren geroko berreskurapenik eragozteko, inbentariotik ezabatu baino lehen.

4.-Euskarriak fitxategien kokapen-lokaletatik kanpora irteten direnean mantentze operazioen ondorioz, beharrezko neurriak ezarriko dira gordeta duten informazioan behar ez den berreskurapenik gerta ez dadin.

21. artikulua.- Gertakarien erregistroa

1.- 10. artikuluan arautu den erregistroan finkatu beharko dira, era berean, datuak berreskuratzeke erabilitako prozedurak, eta zehaztu beharko da nork burutu zuen prozesua, berreskuratutako datuak eta, horrela badagokio, zein datu eskuz grabatu behar izan diren berreskurapen prozesuan.

2.- Beharrezkoa izango da fitxategiaren arduradunaren idatzizko baimena datuak berreskuratzeke prozedurei ekiteko.

22. artikulua.- Frogak benetako datuekin

Izaera pertsonaleko datuak dituzten fitxategiekin aritzen diren informazio-sistemen ezarpenaren edo aldaketaren alde aurretiko frogak ez dira benetako datuekin egingo, erabilitako fitxategi motari dagokion segurtasun maila bermatu ezean.

IV. KAPITULUA.- GOI MAILAKO SEGURTASUN NEURRIAK

23. artikulua.-Euskarrien banaketa

Izaera pertsonaleko datuak dituzten euskarrien banaketa datu horiek zifratuz egingo da edota informazioa garraiatzen denean ez dela ulergarria ezta manipulatu ere izango bermatuko duen beste mekanismoren bat erabiliz.

24. artikulua.- Sarbideen erregistroa

1.-Sarbide bakoitzetik gordeko dira, gutxienez, erabiltzailearen identifikazioa, data eta ordua, erabilitako fitxategia, sarbide mota eta baimendua izan den ala ez.

2.-Sarbidea baimendua izan bada beharrezko informazioa gordeko da zein erregistro atzitu den jakiteko.

3.-Aurreko paragrafoetan zehazturiko datuen erregistroa ahalbidetuko duten mekanismoak segurtasun arduradunaren kontrolpean izango dira eta ezin izango da baimendu, ezein kasutan, desaktibazioa.

4.-Erregistraturiko datuak gutxienez bi urtez gordeko dira.

5.-Segurtasun arduradun eskudunak erregistraturiko kontrol-informazioa aldi-aldi berraztertuko du eta egindako azterketen eta aurkitu diren arazoaren txostena aurkeztuko du hilean behin gutxienez.

25. artikulua.- Segurtasun-kopiak eta berreskurapena

Segurtasun-kopia bat eta datuak berreskuratzeko prozeduren kopia gorde beharko da datuok tratatzen dituzten ekipo informatikoak dauden tokietatik kanpo, betiere, Araudi honetan zehazturiko segurtasun neurriak betez.

26. artikulua.- Telekomunikazioak

Izaera pertsonaleko datuen transmisioa telekomunikazio-sareen bidez egingo da datuak zifratuz edota beste mekanismoren bat erabiliz informazioa hirugarren batek ez dezan ez manipulatu ezta ulertu ere.

V. KAPITULUA.- ARAU-HAUSTE ETA ZEHAPENAK

27. artikulua.- Arau-hauste eta zehapenak

1.-Araudi honetan ezarritako segurtasun neurriak bete ezean zigorra jarriko da 5/1992 Lege Organikoaren 43. eta 44. artikulua aintzakotzat hartuta, titulartasun pribatuko fitxategiak direnean.

Aurreko paragrafoan aipatu zehapena ezartzeko prozedura ekainaren 20ko 1332/1994 Errege Dekretuak araututakoari jarraituz egingo da, Izaera Pertsonaleko Datuen Tratamendurako urriaren 29ko 5/199 Lege Organikoaren zenbait alderdi garatzen duena.

2.-Administrazio Publikoaren ardurapean dauden fitxategiez ari garenean, zehapen eta prozesuari dagokionez, 5/1992 Lege Organikoaren 45. artikulua hartuko dugu kontuan

28. artikulua.- Arduradunak

Fitxategien arduradunek, 5/1992 Lege Organikoaren zehapen-araubidea aintzakotzat hartuta, beharrezko neurri tekniko eta antolamenduzkoak hartu beharko dituzte Araudi

honetan ezarritako izaera pertsonaleko datuen segurtasuna berma dadin.

VI. KAPITULUA.- DATUAK BABESTEKO AGENTZIAREN ZUZENDARIAREN ESKUMENAK

29. artikulua.- Datuak Babesteko Agentziaren zuzendariaren eskumenak

Datuak Babesteko Agentziaren zuzendaria, 5/1992 Lege Organikoaren 36. artikulua araututakoari jarraituz, gai izango da:

1.- Beharreko aginduak emateko behar denean eta beste organo batzuen eskumenen kaltetan izan gabe, tratamendu automatizatuak 5/1992 Lege Organikoaren printzipioei egokitzeko

2.-Agintzeko bertan behera uzteko izaera pertsonaleko datuen tratamendua eta fitxategiak deuseztatzeko Araudi honetan ezarritako segurtasun neurriak betetzen ez direnean.

Xedapen iragankor bakarra.- Neurriak ezartzeko epeak

Araudi hau indarrean sartzen denean jardunean dauden informazio-sistemei dagokienez Araudi honetan aurreikusitako oinarrizko segurtasun neurriak indarrean sartu eta sei hilabeteko epean ezarri beharko dira, **erdi mailakoak urtebeteko epean eta goi mailakoak bi urteko epean.**

Jardunean dauden informazio-sistemak teknologikoki baimentzen ez dituztenean Araudi honetan aurreikusitako zenbait segurtasun neurrien ezarpena, sistema horien egokitzapena eta segurtasun neurrien ezarpena Araudi hau indarrean sartu eta gehienez hiru urteko epean egin beharko da.